

Entzutea eta marraztea



Bigarren Hezkuntza | 6 - 8 saio

Entzutea

Soinua

Marrazketa

Entzutearen ahalmenak aztertzen ditugu; inguruko espazioen sonoritateak aztertzen ditugu, entzute aktiboko eta marrazketaren bidezko itzulpen-ariaketen bidez, gure ingurunearekin lotura berriak garatzen ditugu.

Helburuak

- Gure pertzepzioa zabaltzea, entzutea areagotuz.
- Inguratzen gaituen soinu-espazioarekiko lotura kontzienteagoa izatea, eta, horrekin batera, gure ingurunea ezagutzea, entzumen zentzuaren bidez.
- Irudimenaren aukerak ikertzea, adi eta aktiboki entzutetik abiatuta.
- Marrazkia aztertzea soinu-estimuluetatik abiatuta.
- Soinuari dagokionez, Romina Casilerin proiektu artistikoen ekoizpen eta ikerketara hurbiltzea.

Aipamenak

Audio n° 121 – Obra de Romina Casile: <http://www.rominacasile.com/Audio-n-121>

Publicación Audio n° 121– Obra de Romina Casile: https://issuu.com/rominacasile/docs/proyecto_audio_n___121_rominacasile

Liburuak: Nancy, Jean-Luc. A la escucha. Buenos Aires: Amarró editores, 2007.

Toop, David. Océano de sonido. Buenos Aires: Caja Negra Editora, 2016.

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

Zer ari gara entzuten orain? Zenbat soinu ezagutzen ditugu? Zenbat dira? Nolakoak dira? Entzute aktiboa inguruan ditugun soinuez jabetzeko modu bat da. Praktika bat da, arreta eta kontzentrazioa, pazientzia eta enpatia eskatzen ditu.

Alderdi horiek sustatzeak aukera ematen digu komunikazioan baldintza hobek ezartzeko eta gure ingurunearekin lotura berriak ezartzeko.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Entzumena entseatzea

Erlaxatzeko eta barneko zarata urruntzeko, hiru arnasketa sakon egiten ditugu. Isilik, ingurua entzuten geratzen gara, soinuek gure gorputzean nola eragiten duten hautematen saiatuz. Soinu horiek deskribatzen saiatzeko, zerrenda bat egiten dugu.

Praktika taldeka egingen dugu eta soinu-pertzepzioak kontrastatuko ditugu. (Irakasleak erabakitako espazio batean egin daiteke, barneko edo kanpoko espazio batean).

2. Entzun eta marraztu: 121 audioa Aurreko ariketa egin eta gero, inguruko soinuez gehiago jabetzen gara. Orain, [Brian Enoren "Ambient 1: Music for Airport"](#) diskoko minutu batzuk entzuten ditugu. Gero, entzundakotik marrazketa-praktikara itzultzeko ariketa bat egingen dugu. Nola itzuli soinu bat marrazki batera? Zer lerro, marra, forma eta kolore motek erantzungo diete soinu-inguruneei? Marrazkiak partekatzen ditugu, interesa non jarri den eta soinuak nola harrapatu diren identifikatzen dugu.

3. Audio Proiektua, 121 Romina Casilerin Audio 121 proiektua aztertuko dugu. Argitalpena elkarrekin ikusten dugu. Proiektu honetan, 121. audioaren interpretazioaren ondorioz, artista ezberdinek egindako 40 marrazki ikusi ahal ditugu. Iritziak partekatzen ditugu eta kolektiboki komentatzen dugu.

4. Soinu-erregistroa Ikasle bakoitzak aukeratutako espazio baten soinu-erregistroa egitea proposatzen dugu, minutu bat eta bi minutu arteko audio-fitxategia sortuz (Ahots-ohar baten edo WhatsAppeko audio baten bidez). Bere etxeko espazio bat izan daiteke, hiriko ibilbide bat, parkea, etab. Binaka, audioak partekatzen ditugu (jatorria esan gabe) eta gero jasotako audioa ikusizko proposamen batera itzultzen dugu, marrazki batera edo gehiagotara, entzundakoaren arabera. Elkarrekin hitz egiten dugu.

Ondorioak eta lerro irekiak

Entzutearen garrantzia: nola eragiten digute inguruko soinuek gure eguneroko garapenean? Zeintzuk gailentzen dira eta zeintzuk isilarazten dira? Uler daiteke espazioa bere soinuen bidez?

Hausnarketa horretatik abiatuta, testu pertsonal labur bat idatziko dugu gustuko dugun espazio bat deskribatzeko. Gero, ozen irakurriko dugu.

Entzute aktiboaren esperientziak partekatzen ditugu. Elkarrekin pentsatzen dugu zer gertatu den soinutik marrazkera itzultzeko ariketetan. Ondorio kolektiboak garatzen ditugu eta lagina egiten dugu.